

OLERTI EGUNA LARRAN (32.^a)

Bizitzaren zorroan Lau olerkitxu ezbardinak elkarri lotuak

Oler-garra bizi-bizi egoala asi gintzazan egun au ospa-tzen eta orretan jarraitzen dogu oidiño be; gauza onai ez jake sekulan be agurrik egin bear.

Beti egin izan dogu, eta olantxe aurten be. Kristo Errege egunez emon geuntson berea egun gogoangarri oni: goizean mezea, onen ostein sariak banatzea, itzaldiak, olerkiari buruzkoak ain zuzen, olerki sarituak irakurtea, eritxiak agertzea, olerkarien jarduna, geitu ala gitxitu, obeak ala eskaxagoak, jardun luze interesgarria.

Azkenez, euskaldunok oitura dogunez, bazkari anaikorra, bertsoz, kantuz eta itzaldiz piper-minduta. Eguna naiko illundurik egoala emon geuntsan amaia ekiñari. Agur eta besarkadak, datorren urterarte. Bitartean lanari ekiteko asmoz.

Larra'ko olerti eguna beti izan da, lenengotik gaur arte, diruz urri, baiña gogoz eta borondate onez ugari; oler-lanak, iru saillekoak -lirika, poema eta bertsolari mailla- polito eldu dira, bai moltzoz eta bai gaiez, lirikan amasei lez, poeman lan ederra eta bat-batekoetan ez urri. "Olerti" aldizkarian agertuko dira. Lirikan "Oraintsu" ango batek eskuratu eban saria, poeman aspaldiko Martin Ugarte Saletzeko jaunak eta bertsoan Agustin Beloki legazpiarrak Zaitegi'tar Jokin lanarekin.

Eta zuk bere, Olerti-Egunean emen izan etziñen orrek, zelako lanak datozen ona jakin daizun, emen dozu ondoren M. Ugarte'ren poema ederra, irudimenez azkar, eta euskera ederrez, eredugarri doguna. Urtero bialdu izan dausku poemaren bat, auxe lakoa, eta onezkero ba ditu 25 bat onako, legazpiar gizaseme jakintsu, olerkari porrokatu onek. Lotsati da eta nik lan orreik argitaratu egin bear dirala diñotsadan-arren, ezin dot orretan ipiñi. Egunen baten...

AITA ONAINDIA

I BEGITIK BEGIRA (Maite kantua)

Ikusten diardut, ikusten,
muxu biribillean
ler-zoriz begi bi.
betil txutietan gordeka
txingar antzo ñirñiraz,
izarrak irudi.
Izar-bikutza,
bi begi lapur,
ezten zorrotz bi;
dizdira ezkoz,
nini beltzekin
paparrez txuri;
keiñuak axal,
jokeraz argi.
Bi bolatxoek
dir-dir txaltari,
nere lotion
arrapatari...

Lauso-sarea urraturik
elkarren ezbaian,
gutxi-gutxika urbil miñetan
gerta leikenaren leian.
Mintzo gabeko elkar topatze,
keiñu-jokuaz agian,
itsu zureak, itsu nereok
barne sentipen zurrian.

Maitasun txingarretik
itzaltzeko kera...?
Ni, arrebeta aurrerantza,
zuk oinbete atzera:
t'ion tartea lausotzen
unetik unera.
Argiak kerizpeaz
daron joku bera...

Nere begiok tokirik ote
zure betaurre-sarean?
Ala agian batekoz-beste,
nauzu erraiñu utsean?
losintxakeri otzean...?

Zanpatu dizkit
amets zoroak.
ardatz gabeen
doan kurpillak;
etsipen kabuz
ikustaria,
etenarazi
sentipen soillak.
Orain, ixurgai
begi-malkoak:
negar-punpillak...

II MARI-MATXARDA

Joskiña dala, joskin abilla,
Mari-matxarda andrea.
Galtzipirdiak ilbantzen pasa,
argitzetik illuntzera;
senar gaxoa, galtzetan estu
artu nai luke ostera:
atze ta aurre josi baitio,
arabakiaz batera.
Beazmuttur birekin,
kriskitin soiñua,
aste buru-zorian,
kartetan saioa;
seiarekin jotzen du,
zazpian keiñua...

Titaretxoa galdua omen,
jostorratza paparrean,
oial beltxean ari txuria,
—ori besterik ezean—
Nolabait ere, azka ta puzka
nagiak ateratzean;
orrazmuturra esku-mamian
sartu du bete-betea.

Ttuntturrin, ttuntturrin,
danbolin soiñua...
Bi bidar eten zaio
ari-albaiñua...